

**12/2025 TXOSTENA, APIRILAREN 30EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUAREN ETA ELIKADURA,
LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO SAILBURUAREN
AGINDU-PROIEKTUA, ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILEKO KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAERA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

2025eko apirilaren 7an, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren agindu-proiektuari buruzko txostena eskatu zen. Agindu horren bidez, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren kontratazio-mahaiaren osaera ezartzen da.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zitzaion, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko lehendakaria den aldetik.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: AAAA_ORD_2932/25_15), honako dokumentu hauek daude jasota:

- Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren Aginduaren zirriborroa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera ezartzen duena.



II.- ESKUMENA.

Txosten hau nahitaezkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a) .2 artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, agindu-proposamen bat da, kontratazio-mahai iraunkor bat edo kontratu anitzetarako eginkizunak izango dituen sortzeko.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL), zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora, 326. artikuluan kontratazio-organoari laguntzeko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lege horren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, 326. artikulua ez da oinarritzeko legeria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak 8. eta 9. artikuluetan arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lehenengoa, kide anitzeko organo horiek eratzeko eta kideak izendatzeko arauak ezartzeko; bigarrena, organo horien eginkizunen irismena zehazteko.

Oro har, 8. artikulua xedatzen duenez, prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publizatedunetan, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute, eta mahai horrek izango du eskaintzak baloratzeko eskumena. Gaineratu duenez, lizitazio-iragarkiak argitaratu beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-organoak hautazkoa izango du kontratazio-mahaia eratzea. Kontratazio-organoari dagokio mahaiko kideak izendatzeko eskumena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, bulego horretako titularrak izendatuko baitu.

Artikulu berean, 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntzeko organo horiek eratzeko arauak ezartzen dira, eta ezartzen da kontratazio-mahaiak presidente batek, idazkari-lanak egingo dituen pertsona batek eta, gutxienez, hiru kidek osatuko dituztela. Eta gaineratzen du bokalen artean nahitaez egon beharko direla kontratazio-organoaren



aholkularitza juridikoa eta aholkularitza teknikoa, eta kontu-hartzaile bat edo kontratazio-organoaren ekonomia- eta aurrekontu-kontrolako eginkizuna esleituta duen pertsona bat, hurrenez hurren.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzako pertsona batek parte hartu beharko du kontratazio-mahaian. Pertsona hori kontratazio-organo eskudunak izendatuko du, zuzendaritza horretako titularrak proposatuta.

Kontratazio-organoak hala eskatuz gero, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek ere parte hartu ahal izango du laguntza-organo horretan.

Kontratazio-mahaia osatzen duten pertsonak izendatzeko moduari dagokionez, aipatutako 8. artikulua 3. apartatuaren arabera, modu iraunkorrean edo espezifikoan egin daiteke, kontratu bakoitza adjudikatzeko. Eta ondoren zehazten du ezen, izendapen hori iraunkorra bada edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen saileko titularraren eta dagokion saileko titularraren edo erakundea atxikita dagoen saileko titularraren baterako agindu bidez ezarriko dela haren osaera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela.

Eta beste betekizun bat gehitzen du, ezartzen baitu osaera eta kideen identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian jasoko direla, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dela, kontratatze gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa kalifikatzeko egin behar duen bilera egin baino hamar egun lehenago, gutxienez.

IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK ERATZEA.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera egindako Eusko Jaurlaritzako sailen berregituraketak sail bakoitzari esleitutako jarduketarako eratu ditu, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila barne, zeina aipatutako



dekretuan jasotako egitekoek eta jardun-arloek osatzen baitute. Hala, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 18/2024 Dekretuaren 19. artikuluan zehazten ditu bere egitekoak eta jardun-arloak. Artikulu horren arabera, sail honi atxikita daude «Euskadiko Kirol Tuak» zuzenbide pribatuko ente publikoa; «Neiker-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua SA» eta «Zumaiako Kirol Portua SA» sozietate publikoak; «Hazi Fundazioa» eta «Elika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa» sektore publikoko fundazioak.

Era berean, lehen aipatutako sailaren hamaikagarren xedapen gehigarriak ezartzen du sail horrek osatuko dituela iraungitako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzako eta Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzako organoak eta unitateak. Era berean, Zerbitzu Zuzendaritza bat sortzen da Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailean.

Bestalde, sail horren egitekoak eta jardun-arloak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuaren 1. eta 2. artikuluetan arautzen dira. Artikulu horiek sail horretako kontratazio-organoei beren eskumeneko gaietan laguntzeko organoak berregituratzen dituzte.

Aurretik azaldutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako sailak ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren eta abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuaren arabera berregituratu direnez, xedapen berri bat behar da Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren kontratazio-organismoari lagunduko dion kontratazio-mahaiaren osaera zehazteko.

Halaber, aipatutako 438/2024 Dekretuaren 5. artikuluan ezartzen denez, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio kontratazio-espedienteak eta sailaren bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguak izapidetzea, bai eta sailaren eremuan kontratazio elektronikoko prozedurak eta zerbitzuak kudeatzea eta hedatzea ere, hargatik eragotzi gabe Kontratazio Batzorde Nagusiari kontratazio-arloan esleitzen zaizkion eskumenak.

Era berean, jasotzen da Zerbitzu zuzendaria izango dela sailaren kontratazio-organoa 5.000.000 eurotik beherako oinarritzko lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan, eta



eskuduna izango dela, baldintza beretan, bitarteko propio pertsonifikatuei enkarguak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidea erregulatzeko duen araudian aurreikusitako baldintzetan.

V.- AGINDU-PROIEKTUAREN EDUKIA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostenaren xede den agindu-proiektuak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera iraunkorra ezarri nahi du.

Agindu-proiektuak hasierako azalpen-zatia, hiru artikulua eta azken xedapen bat ditu. Proiektu horrek errespetatu egiten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikuluan eskatzen diren arau-maila eta kontratazio-mahai iraunkorretako kideak edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleituta dituztenak izendatzeko organo eskudunak.

Organoen adierazpena argiagoa izan dadin, alde batetik, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikuluen bigarren paragrafoaren idazkerara hobeto egokitzeko, Aginduaren izenburua hau izatea proposatzen da: «Agindua, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren kontratazio-mahaien osaera ezartzen duena».

Proiektu horren lehenengo artikuluan ezartzen denez, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko kontratazio-organismoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikitadedunetan. Mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu.

Halaber, artikulua horren a) letran, Kontratazio Mahaiaren lehendakaritza Zerbitzu Zuzendaritzako Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketaren arloko arduradunari esleitzen



zaio. Gaineratu duenez, postu hori hutsik badago, titularra kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Saileko Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketako teknikari batek ordezkatu du.

Mahaiko kideei dagokienez, b) letraren lehenengo apartatuan aipatzen da kontratazioa eskatu duen zuzendaritzaren ordezkari bat, kontratazio-organoak izendatua, zeinak aholkularitza teknikoaren emango baitio kontratazio-organoari.

Era berean, letra bereko bigarren apartatuan Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da. Pertsona hori uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua 2. apartatuaren lehen paragrafoaren azken tartekian aipatzen den kide «kontu-hartzailea» bada ere, esaldiaren amaiera kendu behar da («kontratazio-organoaren ekonomia- eta aurrekontu-kontrolaren funtzioarekin»), eta honela utzi da testua: «Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat, bulegoaren titularrak izendatua».

Orobat, b) letraren hirugarren apartatuan, Estrategia Digitalaren Zuzendaritzaren ordezkari bat jasotzen da bokal gisa, haren titularrak ezer adierazi gabe, martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan aurreikusitako kasuetan (36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredia).

Eta, azkenik, letra b) letraren laugarren apartatuan ezartzen da ezen, aukeran eta kontratazio-organoak eskatuta, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek parte hartu ahal izango duela organo horretan, zuzendariak proposatuta eta kontratazio-organoak izendatuta.

Eta c) letran idazkari-bokal aholkulari juridikoaren figura jasotzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko goi-mailako teknikarien kidegoko eskala juridikoko Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio arloko pertsona bat izango da, mahaiko aholkulari juridikoaren eta idazkariaren eginkizunak beteko dituena, hitzarekin eta botoarekin. Lanpostu hori hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio arloko profil bereko beste pertsona batek ordeztuko du.



Agindu-proiektuaren bigarren artikuluan honako idazketa hau proposatzen da, indarrean dagoen araudira egokitzeko: «Nolanahi ere, osaera eta kideen identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian jasoko dira, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratazeko gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak kalifikatzeko egin behar duen bilera baino hamar egun lehenago, gutxienez».

Xedapen-zatiaren azken eta hirugarren artikulua ahalmena ematen dio kontratazio-mahaiari adjudikazio-prozeduretan esku hartzeko, baldin eta, kide anitzeko organo horien esku-hartzea nahitaezkoa ez bada ere, dagokion kontratazio-organoak hala erabakiko badu.

Azkenik, azken xedapenean, arauaren vacatio legis arautzen da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

VI. ONDORIOAK

Azaldutakoagatik guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren kontratazio-mahaiaren osaera ezartzen duen agindu-proiektuari, betiere agindu-proiektuaren edukia txosten honetan azaldutakoari egokitzen bazaio.